

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroak -% 1,2ko defizitarekin itxi zituen 2011ko kontuak, estatuarekin adostutakoa baino hamarren bat beherago

*Gobernuko presidenteordeak Nafarroako gizarteak emaitza horiek lortzeko egin duen ahalegina azpimarratu du*

Miércoles, 01 de febrero de 2012

Nafarroako 2011ko Kontu Orokorrek -% 1,2ko defizitarekin itxi ziren, estatuarekin adostutakoa baino hamarren bat gutxiagoko defizitarekin (-% 1,3). Hala agertu du Nafarroako Gobernuak gaur ikusi duen txostenak, eta berau Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministeriora bidaliko da.



2011n, Nafarroako Ogasunaren diru-sarrerak 3.533 milioi eurokoak izan ziren eta gastuak 3.852 milioi eurokoak. Horrek, estatuko kontabilitateari jarraiki egindako doiketen ondoren, 230 milioi euroko defizita (-% 1,2) egon dela esan nahi du.

Álvaro Miranda bigarren presidenteorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariak aurkeztu ditu datu horiek, eta gogorarazi du defizitaren doiketa egitean Nafarroak ez duela kontuan hartu Pirinioetako Autobia, ezadostasunak sortu direlako Estatuko Kontu Hartzailtza Nagusiaren eta Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioaren artean azpiegituraren zenbaketaren inguruan. Nafarroako Gobernuaren ustez, ez da barne hartu behar Kontu Orokorretan. Foru Gobernuak Estatuarekin gai honen inguruan egin dituen hizketaldiek datozen asteetan jarraituko dute Ogasun Ministerioak behin betiko erabakia hartu arte, aurreikusi denez, otsailaren amaieran.

Miranda presidenteordeak adierazi du ordura arte Nafarroak bere jarrerari eutsiko diola. Azkenean Pirinioetako Autobia kontuan hartuz gero, 5 hamarren gehitu beharko zaizkio defizitari, ondorioz, -% 1,7koa izango da. Edonola ere, kontalaritzako oharra izan arren, ez du inolako eraginik izango Nafarroako zor publikoan.

### Gastuaren doiketa

Nafarroako Gobernuak, iragan irailean, 2011rako aurrekontuko gastua doitu zuen. Horren emaitzak ere gaur goizean aurkeztutako txostenean jaso dira. Amaierako gastua 3.852,5 milioi eurokoa izan zen,

hau da, 313,45 milioi euro murriztu ziren (-% 7,37) 4.166,4 milioi euroko hasierako aurrekontutik.

Zenbateko horretatik, inbertsio errealek eta kapital-transferentziek izan dituzte doiketa handienak ( % 32,83 eta -% 30, hurrenez hurren). Langileen gastuek gora egin dute zertxobait (% 1) hasierako aurrekontuan jasotakoarekin alderatuta, nahiz eta finkatutako aurrekontuari dagokionez murriztu.

Departamentuei erreparatuta, murrizketen eragin txikiena izan dutenak Hezkuntza (-% 1,91) eta Osasun (-% 2,20) Departamentuak izan dira; aldiz, Gobernuko zerbitzuen eta inbertsioen murrizketak batez beste % 7,37koak izan dira.

Miranda presidenteordeak Gobernuak eta Nafarroako gizarteak, krisialdi ekonomiko orokorra dela-eta, gastuari eta defizitari eusteko egin duten ahalegina azpimarratu du.